



MINISTERIO
DE POLÍTICA TERRITORIAL
Y FUNCIÓN PÚBLICA

 muface

DPS-34301 EREDUA BETETZEKO ARGIBIDEAK
AUTONOMIA PERTSONALA ERRAZTEKO
LAGUNTZA-ESKABIDEA

AUTONOMIA PERTSONALA ERRAZTEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA BETETZEKO ARGIBIDEAK

(DPS - 34301)

Laburpen hau eskabidea betetzeko erabilgarri izango zaizu. Hala eta guztiz ere, prestazio hauen eduki osoa deialdiaren ebazpenean adierazten dela gogorarazten dizugu.

OHAR JAKINGARRIAK

- Ez idatzi ilundutako guneetan.

LAGUNTZA KOB RATZEKO.

- Hileko zenbatekoaren prestazioak izanez gero, lehen aldiz denean edo hurrengoetan ere, ordainketa hileroko eskatu ahal izango da edo zenbait hilabeteetako pilatu -jasotako zerbitzuak justifikatzen dituzten **fakturak edo ordainagiriak**, alde aurretik aurkezturik.
(Fakturek legezko betekizunak bete beharko dituzte eta ordainagirik Deialdiaren 2.6.4 epigrafean adierazitakoak).
- Pertsona fisikoek egindako lanak adierazteko ordainagiri-eredua dagoeneko egina dugu: DPS-34915 (Deialdiaren ebazpenaren II. eranskina). Ordainketa bizkortzeko eredu hori erabiltzea gomendatzen da.
- Lehen aldizkako ordainketa egiteko, pertsona fisikoek egindako zerbitzuak direnean, IFZren fotokopia edo atzeritarrak identifikatzeko agiriarena (NIE). NIE agiririk ez dutenek, berriz, Gizarte Segurantzako afiliazio-agiria eta NIE edo IFZ lortzeko eskabidea aurkeztu beharko dituzte.
- Ez da onartuko gerta daitezkeen atzerapenen finantzaketarik hileko batzuetan, eta ordaindutako aldiei dagozkien ordainagiri edo faktura osagarriak ere ez, laguntzen periodizitatea zeinahi dela.
- Urte osoko zenbatekoaren prestazioak izanez gero -traba arkitektonikoak kentzeko laguntzak eta baliabide teknikoetarako laguntzak, hain zuzen ere- ordainketa behin bakarrik egingo da eta ordaindutako fakturak denak batera aurkeztuko dira, ordainketa-eskabide bakarrean metaturik. Hileko laguntza izanez gero, hau da, hondar-gaitasuna mantentzeko eta areagotzeko laguntzak, ordainagiri edo faktura batzuk pilatu ahal izango dira ordainketa bakarra egiteko.

1 ESKATZEN DUEN TITULARRAREN DATUAK. Afiliazio-agiriaren titularrari buruz eskatutako datu guztiak adierazi.

2 PRESTAZIOAREN ONURADUNAREN DATUAK.

- Prestazioaren onuraduna titularra ez bada, onuradunaren datuak adierazi, afiliazio-agirian agertzen den hurrenkera zenbakia zehaztuz.
- Zerbitzurako ezintasun iraunkorra duten erretiratuek eta ezintasun iraunkorragatik pentsiodunek (erabatekoa, absolutua edo baliazintasun handia) %33 edo hortik gorako minusbaliotasun-gradua izatearen baldintza betetzen dutela kontsideratuko da.

3 ESKATUTAKO LAGUNTZA.

- **MODALITATEAK:** Inprimaki bakoitzarekin laguntza-mota bat bakarrik eska dezakezu.

4 TRANSFERENTZIAREN BIDEZ ORDAINTZEKO DATUAK. Derrigorrezkoa da banketxearen eta sukurtsalaren zenbaki kodeak, kontrol digitua (K.D.) eta kontu korrontearen edo aurrezki libretaren zenbakia adieraztea.

5 PRESTAZIOAREN ONDORIO EKONOMIKOEN DATA. Jasotako eta jasotzea espero diren zerbitzuen hasierako data adieraziko da, bakarrik baldin eta hondar-gaitasuna mantentzeko eta areagotzeko laguntzak eskatzen baduzu. (laguntza 3.1). Prestazioaren ondorio ekonomikoen data, Deialdian ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

6 JAKINARAZPENERAKO DATUAK. Nahi izanez gero, adieraz dezakezu zer bide nahiago duzun jakinarazpena egiteko eta baita beste bizileku bat jakinarazpen-ondorioetarako ere.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

BETEKIZUNAK EGIAZTATZEN DITUZTENAK

- **Ezgaitasun-graduari edo menpekotasun-graduari buruzko ziurtagiria, eta azken honetan, kasuan kasu, dagokion maila, IMSERSOK edo Autonomia Erkidegoko eskudun Organoak egindakoa.**
- * Klase Pasiboen Erregimeneko ezintasun iraunkorragatiko erretiro mota azaltzen den administrazio-agiria edo Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrak onartutako ezintasun iraunkorragatik pentsiodun-adierazpena. Administrazio-agiri hori ez da beharrezkoa izango MUFACEn eskuetan balego.
- * **Medikuaren txosten gaurkotua.**- Prestazioaren onuradunari asistentzia emateko arduraduna den espezialistak egin beharko du txostena. Bertan, **zehatz-mehatz** adieraziko ditu diagnostikoa eta berreskuratzeko aukerak eta egiaztatu behar ditu ere laguntza-mota bakoitzetarako ezarritako puntu guztiak.
Baliabide teknikoetarako laguntzaren kasuan, bigarren baliabide teknikoa eskuratzearen beharraren berariazko egiaztapena. Azken hau, baldin eta 2019ko deialdiaren aurreko bi urteetan diru-laguntza jaso badu, berdin-berdina edo antzekoa edo antzeko ezaugarriak dituen beste baliabide bat eskuratzegatik.
HONDAR-GAITASUNA MANTENTZEKO ETA AREAGOTZEKO laguntzak direnean, zehaztu beharko du "osasan-laguntza jasotzeko MUFACEk izenpetu dituen Itun edo Hitzarmenetan ez daudela erabiliko diren teknikarik", ondorengo kasu hauetan izan ezik:
 - **Estimulazio goiztiarra** denean.
 - Aurreko deialdian laguntza lortu zenuten **teknika berberak** erabiltzeko eskatzen denean.
- **Memoria arrazoitua eta balorazioa.**- Eraberritze-obraren balorazioa, egingo diren aldaketak zehaztuz eta kontratistak sinatuko du bere izendapena eta nortasun fiskala adieraziz:
 - **Traba arkitektonikoak** kentzeko laguntzak direnean bakarrik.
- **Gizarte-Ekintzarako Batzordearen ziurtagiria edo honen pareko administrazio-agiria edo adierazpen erantzulea, DPS-34916 ereduaren arabera**

DIRU-SARRERAK EGIAZTATZEN DITUZTENAK

ESKABIDE GUZTIENTZAT

- Pentsioen eta prestazioen **aitorpen erantzulea** (baiezkoetan nahiz ezezkoetan izan), interesdunak egindakoa, diru-sarrera hauei dagozkiona: erabateko ezintasun iraunkorraren ondoriozko pentsioak, Gizarte Segurantzak edo Gizarte Segurantzaren ordeztaritzen diren entitateek aitortutakoak, edo Estatuko Klase Pasiboen Erregimenak onartutako antzeko pentsioak; baliazintasun handiagatik pentsioak edo prestazioak; osasan-laguntzaren prestazio osagarriak (adibidez protesiak ordaintzeko laguntzak); ikasteko bekak eta laguntzak; ehorzketarako laguntzak; baita Gizarte Segurantzaren edozein Erregimen Publikoetatik hartutako beste pentsio eta prestazioak ere, zergatik salbuetsita daudenak edo PFEZren menpe ez daudenak eta laguntza hauen ondorioetarako konputagarriak direnak (MUFACEko DPS-34912 inprimakia).
- Bidezko **Entitateek** egindako pentsioen edo prestazioen **ziurtagiriak**, aipatutako aitorpenean sartu diren diru-sarrerak egiaztatzen dituztenak. (Aitorpena osorik ezezkoa baldin bada eta MUFACEk emandako pentsio edo prestazioak direnean, ziurtagiri hauek ez dira beharrezkoak izango).

DIRU-SARRERAK EGIAZTATZEN DITUZTEN AGIRIAK (jarraipena)

BERAIEN DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO MUFACERI BAIMENA EMATEN DIOTEN PERTSONENTZAT

- **BAIMEN** Arako gordetako gunean eskatutako datuak adierazi behar dira beti, PFEZren ondorioetarako 2019ko urtarrilaren 1ean famili unitateko zergadun guztiei dagozkionak.
- **Horiek guztiek sinatu** behar dute, eskatzaileak ere, baldin eta eskumena duen Zerga Administrazioari beraien datu ekonomikoak eskatzeko MUFACERi baimena ematea erabakitzen badute.

BERAIEN DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO MUFACERI BAIMENA EMATEN EZ DIOTEN PERTSONENTZAT

Onuradunaren egoerari dagozkion agiriak, 2017ko ekitaldi ekonomikorako Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortpenari (PFEZ) dagokionez, eta aitortpen osagarria ere, horrelakorik izanez gero, kasu hauen arabera:

* PFEZ Aitortpena Renta Web-en bidez aurkeztu bada, aitortpenaren aurkezpenaren informazioa (D-100 Eredua) eta ordainketaren agiria.

* Aitortpena aurkeztu beharrik ez baduzu eta itzulketarik ere ez baduzu eskatu:

- Zergari buruzko **aitortpenik aurkeztu ez duzula eta aurkeztu beharrik ez duzula** egiaztatzen duten Zerga Administrazioaren **ziurtagiriak**.

- Prestazioaren onuradunak sinatutako **aitortpen erantzulea**. Aitortpen horretan adierazi beharko dituzu aipatutako ekitaldian lortutako etekin garbiak, ondorengo gaiei dagozkienak: lan-etekinak, higigarrien kapitalaren etekinak eta ondare-irabaziak, babes ofizialeko edo prezio tasatutako etxebizitza erosteagatik emandako laguntzak, higiezinen errentak eta beste diru-sarrerak. (MUFACEko DPS-34911 inprimakia, Deialdiaren 4. b) parrafoa 2.11.1. b) epigrafearen arabera).

OHARRA .- **Helbide fiskala Lurralde foralean** baldin badago, aipatutakoan antzeko agiri fiskalak erantsiko dira.